

PROTOTIPOAK

FORMA ARTISTIKO BERRIEN NAZIOARTEKO
TOPAKETA

25 - 28 > Maiatza 2016

#prototipoak

ARTEA ETA
KULTURA



KOLABORATZAILEAK

BRITISH
COUNCIL

GOETHE
INSTITUT

INSTITUT
FRANÇAIS

Universidad
del País Vasco

DeustoBide
Escuela Herriko
Unibertsitatea

Escuela de Capacitación
Herriarteak - Escola

LAGUNTZAILEAK

ALSA

ESKUPILARENTZULAN.COM

abitura

Gora Buru
Kultur Ekintza



metro
bilbao

Az

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

www.azkunazentroa.com



Azkuna Zentroak Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Topaketa antolatuko du maiatzaren 25etik 28ra arte, **Prototipoak** izenburuarekin, '3, 2, 1. Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa' programari jarraipena emateko. Bi urtean behin bienal moduan egingo den Nazioarteko Topaketa honek formatu artistiko berriak hurbildu nahi ditu herritarrengana, ezohiko espazioak erabiliz eta erkidegoarekin batera sortutako prozesu artistikoen bidez. Prototipoak programan izango ditugun artistek eta proiektuek, site specific-etik abiatuz, beren lana proposatutako testuingurura egokituz, esperientzia berriak eskainiko dizkiete ikus-entzuleei.

Azkuna Zentroaren programazio-ildoari jarraitzen dio, hau da, mintzaira garaikideak babesten ditu, eta Bilboko beste programazio edo instituzio batzuen zeregina osatzen du. Oraingoz, lehenengo prototipoa baizik ez da izango; baina etorkizunean, nazioarteko eta erkidegoko bokazioa duten ikusleen eta artisten arteko harremanei bide emango dien ingurunea izan liteke.

Programa honekin, Azkuna Zentroak espazio 'erkide' bat zabaldu nahi du, artisten arteko, eta artisten eta erkidegoen arteko, parte-hartze horizontala jarraibidetzat hartuta. Kanpoan/barruan eta barruan/kanpoan logika landu nahi da, formatu desberdinetan eta espazioan; eta, horrez gain, espazio erkideak sortu nahi dira espazio eta denboren artean, arteari dagozkion espazioen artean eta publikotzat jotako espazioen artean.

Azkuna Zentroa espazio 'erkidetzat' hartzen badugu, orduan, nola jokatu gizarteko eztabaidak, aldaketak, tirabirak, gatazkak eta bestelakoak espazio horretan ordezkatuta egon daitezen, mintzaira artistikoen bidez? Horixe da komisarioei eta artistei jotako erronka.

Ilido horretan, **Prototipoak** programak herritarrengana hurbildu nahi ditu formatu artistikoak, ezohiko espazioak erabiliz. Baina, horrez gain, herritarrak artistengana eta artisten proposamenetara hurbildu nahi ditu aldi berean. Azken batean, une bereziak sortu nahi dira, artistek, beren proposamenen bidez, partekatze moduko esperientziak biziberritu ditzaten.

Lehen edizio honetan, bertako eta nazioarteko zenbait artistak egindako 15 proiektu aurkeztuko ditu **Prototipoak** programak. Lau komisario aritu dira lanean, programa egituratzen: Javier Duero, Xabier Erkizia, Mateo Feijóo eta Rosa Casado. Horrez gain, tailerrak, performanceak, instalazioak, hiri-erakusketak, hirian zeharreko ibilbide artistikoak eta bestelakoak izango ditugu. Horrenbestez, hiriko beste espazio batzuetara zabalduko dugu artea, Azkuna Zentroa epizentrotzat hartuta.






#prototipoak

David Hornback argazkilaria estatubatuarra, San Franciscoko Loma Prieta lurrikararen erreportaia gatik 1990ean Pulitzer sariaren irabazleak (bere lantaldearekin batera), Azkuna Zentroarekin elkarlanean, Prototipoak Topaketa dokumentatuko du argazkien bidez. Bere irudiak Eguzkiaren Pantailan proiektatuko dira egunero.

PROTOTIPOAK

Prototipoak programan parte hartuko duten komisarioek, proiektuek, artistek, kultura-eragileek, lankideek eta herritarrek, espazio ezohikoetan prozesu artistikoak sortuz, partaidetzako sare bat eratuko dute.

Azkuna Zentroan egiteaz gain, proiektuak hiriko beste toki batzuetan izango dira, hain zuzen, Deustuko Mano de Santa gunean, Espacio Open Zorrotzaurre, Bailén kaleko etxe-orratzean, eta Zazpikaleetako, Kale Nagusiko eta Indautxuko hainbat ibilbidetan. Horrenbestez, hiriko beste espazio batzuetara hedatuko dugu artea, Azkuna Zentroa epizentrotzat hartuta.

-  Komisarioak
-  Proiektuak
-  Artistak
-  >> Kolaboratzaileak
-  Kokapena



MANO DE SANTA GUNEA
(DEUSTO) // AZ

- >> DEUSTO BIDE: Aisialdi Ikasketen Inositua, Deustuko Unibertsitatea
- >> Mano de Santa. Sorkuntza gune polibalentea

Cai Tomos

'GEURE BURUA
AHAZTEN ETA
GOGORATZEN'

Mateo Feijóo



HIRI
ERAKUSKETA
BILBOTIK
ZEHAR

- >> Joseba Ostolaza Harri Eskola
- >> Anaiz Aurtenebe Lekerika
- >> Emari taldea
- >> Almitza Segal Elkartea
- >> Mutrikuko Sokatira Taldea
- >> Gallartako Herri kirol Eskola
- >> Santurtzioko Neska Taldea
- >> Eibarko Euskal Jokoak
- >> Leioako Euskal Kirol Zaleak
- >> Xepia Kirol Elkartea
- >> Kaiku Arraun Kirol Elkartea

>> Arran Zerbitzu Kulturalak

Julian Germain

'WORK AND
PLAY-BASQUE
COUNTRY
SPORTS'

Markus Wüste

'MOMENTS OF
RELAXATION'

Ten Pen Chii Art Labor

'RURAL
AND SPICY'



>> Arran Zerbitzu Kulturalak

ESPACIO OPEN ZORROTTAURRE




Rosa Casado

Xabier Erkizia

'ON AIR'

Graeme Miller

>> Abitura Arquitectura



BAILÉN ETXE ORRATZA // AZ

'CARRYING RUBÉN'

Mike Brookes & Mike Pearson

>> DEUSTO BIDE: Aisialdi Ikasketen Institutua, Deustuko Unibertsitatea



IBILBIDEAK BILBOTIK ZECHAR: PLAZA BERRIA → AZ

'MÁS ALLÁ DEL RUIDO'

Carlos de Hita

'MONTAÑA'

Belén Cueto

>> Bizkaiko Zabor Berziklategia

'EXOTE'

Kris Verdonck

>> Aholkularitza EHU/UPV
>> Bilboko udaletxeko lorezaintza saila
>> El Karpin
>> ICARUS
>> BRINZAL

'DISECCIÓN'

Eric La Casa

'DIARIO DE UN VIAJE INTERIOR'

Maialen Lujanbio

Oskar Alegria

Luca Rullo

'BLACKOUT #30'

TRES

>> Yandiola

'EL RECHINAR (A)PAGADO'

>> Gora Buru Kultur Elkartea



IBILBIDEAK BILBOTIK ZECHAR: PLAZA BIRIBILA → AZ

'BLACKOUT #30'

TRES

Bartzelona

Akzioa

Komisarioa: Xabier Erkizia


Maiatzak 28

00:15-01:00

Kulturen Ataria (sarrera Fdez. del Campotik)

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

[Jaso zure sarrera Infopuntuan](#)



Akzio honetan, soinu-eskultura gisa hartuko da Azkuna Zentroa, eta mailaz maila itzaliko dira bere sistema teknologikoak eta geruza akustikoak, giroko argia eta zarata iraungi, isiltasuna eta iluntasuna lortu arte.

Esparru arkitektonikoen funtzionamendua posible egiten duten sistema teknologikoen itzaltze mailakatuaren oinarritutako prozesuaren bitartez sortzen den soinu-zuko esplorazioa da 'Blackout'. Prozesu horretan, espazioak, soinu-zuko eskultura bihurtzen den heinean, barruan biltzen dituen geruza akustikoen hustuketa jasaten du. Giroaren zarata nahiz argiztapena irauli eta ahalik eta isiltasun eta iluntasun maila handiena lortzea da helburua.

'Blackout'-ak, gure entzumenaren errejistro ohikoenaren oinarriak disezkatzen ditu: gure lantoki eta bizilekuak bustitzen dituzten murmurio eta zurrumurruen formarik gabeko masa mailaka erakusten du. Soinuzko biluzte honek espazioan elkarbizi diren osagarri mekanikoak, eta guretzako askotan oharkabean mintzatzen direnak, banaka aditzeko aukera eskaintzen dio entzuleari.

TRES

Isiltasunarentzako eskenatokiak sortzea da Tres artistaren ikerketa teoriko nahiz estetiko bideratzen duen arrazoa. Honezkeru hiru hamarkada daramazki ikerketa eta esperimentazio bide hori jorratzen. Hainbat urtez Musikaren eta artean alorretan burubelari jardun ondotik, 1986an, isiltasunari buruzko informazioa biltzen hasi zen, isiltasuna bera zentzu zabalenean ulertzeko modu ugariak gainjarriz eta batuz. 1998an 'Muted', Isiltasunaren faktoria izeneko instalazioa antolatu zuen Bartzelonako CCCBn, gerora bi ediziotara luzatuko zen festibala abiatuz. Geroztik, ekintza isil ugariak aurkeztu ditu, beti ere isiltasunari presentzia emateko helburuarekin eta isiltasunaren aukeretan sakondu asmoz.

'CARRYING RUBÉN'

MIKE BROOKES eta MIKE PEARSON

Erresuma Batuak

Performancea

Komisarioa: Rosa Casado

Maiatzak 25

20:00-22:00

Erakusketa Aretoa / Hiri ibilbidea Plaza Berritik Azkuna Zentroa

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

[Jaso zure sarrera Infopuntuan](#)



Multi-site performancea Bilboko kaleetatik, Mike Brookes eta Mike Pearsonek Cardiffen (2001) egin zuten 'Carrying Lyn' performancea berregiteko: bertan, lagun-talde batek jasota eramango dute dibertsitate funtzionala duen Rubén Mateos performerra.

Bi ibilbide egingo dira: lehenengoa goizeko 11:00etan eta bigarrena arratsaldeko 20:00etan. Bigarren ibilbide hau gertatzen den une berean, Mike Brookes artistak bi ibilbide hauen ikusizentzutezko berreraikitze posibleak aurkeztuko ditu Azkuna Zentroko Erakusketa Aretoan, honekin batera, Mike Pearsonek hiri-espazioei buruzko hausnarketa planteatuz. Dokumentazioa, aldi berean bizikletan ibiliko diren mezularien bidez batuko da.

'Carrying Rubén' Prototipoak programarako berariaz garatutako esku-hartzeko performance bat da. Lanak 'Carrying Lyn' berreraikitzen du: Pearson/Brookesek asmatutako eta hasieran Cardiffen (Hego Galesen) 2001ean antzeztutako ekintza multikokatua. Jatorrizko lanean, lagun-talde txiki batek Lyn Levett dibertsitate funtzionala duen aktore transexuala garraiatu zuen bere hiriaren erdigunetik, espazio publikoan bi aldiz egun berean sartuz: goizaldean eta gauean. Kaleko ekintza egin bitartean sortutako dokumentazio-zatiak gela batean zeuden publiko baten aurrean aurkeztu zituenez, hirigune baten espazioan egunetik gauera arte egindako esku-hartzeko zuzen baten moduan atera zen lana. Aldi berean, ikuspegi ugari zabaldu zituen, aktorea lekualdatzeko ibilbidearen bilakaeraz eta inguruko hiriaren izaera aldakorraz. Handik hamabost urtera, 'Carrying Rubén' aurkeztuko da berriz -Rubén Mateos Lima bertako antzezlearen eta bere lagun-talde baten laguntzaz-, eta berriz aztertuko dira performance honen proposamenak eta egitura, Bilbo erdiko kaleetatik eta Azkuna Zentroko espazioan.

PEARSON/BROOKES

Pearson/Brookes performance-taldea 1997an sortu zuten. Biek batera egin duten lana aitzindarizat jo da, performanceko praktketan, kokapen zehatz eta anizkunenetan. Aldizka egin dituzten lankidetzetan, era askotako elementuak erabili dituzte, hala nola audio-laginketak, multiproiekzioa edo eskala handiko proiektzioa, irismen txikiko irratia edo satellite bidezkoa, telefono mugikorrak, mapaketa, autoak eta helikopteroak. Eragin handiko performance-lanen multzo nabarmena osatu dute horrela, espazio publiko, antzoki eta hedabideetarako.

Lantaldea:

Performerrak: Rubén Mateos, Salut Bueno, Amai Fernández, Verónica Mas, Nazario Díaz
Mezulariak: Osvaldo Navia Canelo eta Ricardo Flores Rojas

Aholkularitza:

Yolanda Lázaro Fernández, DeustoBide - Herritartasun Eskolako zuzendaria
Aisialdi Ikasketen Institutua, Deustuko Unibertsitatea

Eskerrak:

Camila Tellez eta Ibon Salvador

'DIARIO DE UN VIAJE INTERIOR'

OSKAR ALEGRIA, MAIALEN LUJANBIO

eta LUCA RULLO

Euskal Herria

Dokumentazioa/Instalazioa


Komisarioa: Xabier Erkizia

Maiatzaren 26tik ekainaren 4ra

18:00-21:00

Jarduera Osagarrien Eraikina

Sarrera dohainik



Xabier Erkiziak proposatutako ekintzen informazioa bilduko eta erregistratuko dute. Lan hau Jarduera Osagarrien Zentroan (2. solairua) erakutsiko da maiatzak 26tik ekainak 4ra.

Orain 116 urte Katharine Lee Bates idazleak egindako kronika ariketaren eguneraketa bat egiteko proposamena luzatu diegu hainbat artistari. «Inpresioen bilduma bat baino ez» idatzi zuen harek jasotakoek gaur egun zer nolako formak hartu dituzten ahalik eta modu aberatsenean ikasteko, adi egoteko konpromisoaz gain, zentzumenen disezio ariketa bat proposatu dugu: Luca Rulloren belarriak, Oskar Alegriaren begiak eta Maialen Lujanbioren hitz eta eskuak hartu ditugu, kronika bakar bat osatzeko. Oinarrian, teknika eta metodologia guztiz ezberdinekin lan egiten duten arren, galdera berari erantzuna ezin topatu dabilzan hiru sortzaile jarri ditugu erantzun bila, idi gurdi baten aitzakian: Noren ondorengo ote gara? Gure aurrekoen ondorengo? edo guri buruz idatzi zutenen ondorengo?

MAIALEN LUJANBIO

Maialen Lujanbio Zugazti bertsolaria eta idazlea da. Azken 20 urteotan bertsolaritzari eta orokorrean ahozkotasanaren munduari egin dizkion ekarpenak, bertsolaritza modernoa ulertzeko ezinbestekoak dira. Ahozko tradizioen erreprodukzio soilera mugatu beharrean, ahotsaren eta hitzarenganako hurbilketa pertsonal, bizi, ugari eta kaleidoskopikoaren bidez tradizio hauen oinarria bera zabaltzeko gai izan da, bestelako lurralde ezezagun eta esperimentaletara eramanez.

LUCA RULLO

LaFundició taldeko kide 2011tik, Bartzelonako FIB-UPC-n eta Konpostelako ETSE-USC-n Informatikako ingeniari-tza teknikoko ikasketak burutu zituen, ondotik soinuaren alorrean graduazioa eskuratzeko. Hainbat hezkuntza egitasmo garatu ditu, IKTak erabiliz, kultur dinamizazioaren alorrean lan egiten duten enpresentzako baita autojestion oinarritutako egitasmoetarako. Soinu teknikari gisara, Trinxera ekoiztetxearentzako egin izan du lan, baita free-lance modura ere. Gaur egin AUDIO-LAB soinu kulturari eskainitako elkarterko kide eta SOINUMAPA.NET egitasmoaren bultzatzaile nagusienetakoa da.

OSKAR ALEGRIA

Kazetaritza ikasketak egin eta El Pais egunkariaren El Viajero gehigarri-rako hainbat bidai erreportai idatzi zituen. Enrique Vila-Matasek oniritziarekin, Hiri ikustezinak izeneko argazkilaritza egitasmo artistikoa osatu zuen. Nafarroako Unibertsitateko ikusentzunezko gidioen masterreko irakasle da, eta 2013az geroztik Nafarroako Ikuspuntu zinema dokumentalaren nazioarteko jaialdiaren zuzendari artistiko lanak betetzen ditu. Bere lehenbiziko luzemetraia, 'Emak Bakia baita', munduko osoko dozenaka jaialditan erakutsi izan da, 15 sari jaso ditu eta 13 hizkuntzetan itzulia izan da.

'DISECCIÓN'

ERIC LA CASA

Frantzia
Instalazioa
(Topaketaren aurreko egunetan egindako tailerraren emaitza)


Komisarioa: Xabier Erkizia

Maiatzaren 26tik ekainaren 4ra

18:00-21:00

Jarduera Osagarrien Eraikina

Sarrera: dohainik



Tailer honek hiriaren soinu-diseinua aztertuko du, fonografia oinarriztat hartuta, eta soinu-instalazio batekin amaituko da. Instalazio hau Jarduera Osagarrien Zentroan (2. solairua) izango da maiatzak 26tik ekainak 4ra.

Nagusiki, fonografiaren artean oinarritutako tailer hau hiriaren soinu paisaiaren entzunaldi eta errejistro ariketa batetik abiatzen da. Helburua ordea ez da hiriaren soinu egiteko eraren erretratu fidela eta zehatza osatzea, hiri asots horiek entzun arazteko dituzten moduen eta bereziki kokatzen diren testuinguru soziokulturalean hartzen dituzten esanahien eta loturak ulertzea baizik. Tailer honen emaitzek erresidentzia egunak pasa ahala osatzen joango den soinu instalazio bat osatuko dute.

ERIC LA CASA

Eric La Casak errealitatearen pertzepzioa zalantzan jartzen eta gaur egun musika bezala ulertzen dugunaren mugak zabaltzen egin du lan. Soinuak jasotzeko moduarekiko hurbilketa estetiko jakinen bidez, bere lana, soinu-artearen edo musikaren alorretan koka daiteke aldi berean. Soinu paisaiaren inguruan egindako esperimendazio /inprobisazio saiakerek, instalazio gisara nahiz musika pieza gisara hartzen dute forma.

'EL RECHINAR (A)PAGADO'

XABIER ERKIZIAREN PROPOSAMEN BAT

Performancea

Komisarioa: Xabier Erkizia

Maiatzak 28

12:00

Hiri ibilbidea Plaza Biribiletik (Metro Abando)

Azkuna Zentrora



Performance honek XIX. mendeko Bilboko ohiko eszena bat birsortuko du: idi-burdi karrankaria, kaleetatik kirrinka, hiriko soinu-marka bilakatuta.

«Behin batean, asmo aurrerakoieko hiri batek, halako musika gogaikarriak hiribarnean sartzen zituenarentzako bost dolarreko isuna ezartzea erabaki zuen. Orduan, libre jaiotako euskaldun haietako batek, goizean esnatu, uztarri ederrena aukeratu, idiei jarri, beraien begi bareak tapatzen zituzten gorri koloreko larruak arreta haundiz ezarri, eta herrirako bidea hartu zuen: 'txirrin, txarran, txirrin, txarran'. Herriko etxera iritsi zen zuzen-zuzen. Bertan 25 pezetako isuna ordaindu eta egun guztian bere gurdia kalez kale paseatu zuen, denei aldez aurretik ordaindu zuen kirrika entzunarazteko».

Katharine Lee Bates (1859-1929).

Spanish Highways and Byways: Across the Basque Provinces

(McMillan co., New York, 1900)

Kolaborazioa:

Gora Buru Kultur Elkarte

'EXOTE'

KRIS VERDONCK

Belgika

Instalazioa

Komisarioa: Rosa Casado

Maiatzaren 23tik ekainaren 4ra

11:00-21:00

Erakusketa Aretoa

Sarrera dohainik

Bisita gidatuak: ostegun, ostiral eta larunbatetan
18:00etatik 18:30etara. Inskripzioak - Infopuntuan edo
telefono bidez: 944 014 014



Lorategi instalazio honetan, Euskal Herriko espezie aloktono inbaditzaile nagusiak bilduko dira (fauna eta florakoak). Hogei bat dordoka (*Trachemys scripta*) izango ditugu lorategian, Buddleja Davidii landare inbaditzaileekin batera.

'Exote' (2011) instalazioan, oso erasokorrak diren espezie batzuk aukeratu ditu, biodibertsitaterako, ekonomiarako eta osasun publikorako benetako mehatxua direnak. Lorategi bat sortu nahi du espazio artistiko batean, 'ihes' eginez gero ekosistemari benetako arriskua sortuko lioketen landareekin eta animaliekin. Hortaz, lorategira sartu nahi dutenek jantzi babesgarria jantzi behar dute sartu aurretik, eta, gero, 'dutxa lehor' moduko zera batetik igaro behar dute, hazi eta espora guztiak gainetik kentzeko. Proiektua, beraz, gizadiaren eta natura moldatzeko gogoaren historiaren barruan sartzen da. 'Munduaren amaierako pasaia' bezalako zerbait da 'Exote', Eden lorategiaren aurkakoa, hain zuzen. Biodibertsitatean sarraskiak egiten jarraitzen badugu, pasaia ezereztuko dugu, Verdonckek erakusten digun eran: mundu monotonoa, pobrea eta babesgabea izango da, espezie gutxi batzuk haziko dira, eta bertan bizi diren pertsonak, berriz, era guztietako babesak erabili beharko dituzte eurek sortutako inguruari aurre egiteko.

KRIS VERDONCK

Kris Verdonck, arte bisualak, arkitektura eta antzerkigintza ikasi zituen, eta prestakuntza hori argi islatzen da bere lanean. Bere sorkuntza-lanak arte bisualen eta antzerkiaren arteko eremuan daude, instalazioaren eta performancearen artean, dantzaren eta arkitekturaren artean. Antzerki-sortzaile eta artista bisual gisa, zabala eta askotarikoa da bere proiektuen historiala.

Lantaldea:

Zuzendaritza eta kontzeptua: Kris Verdonck

Dramaturgia: Marianne Van Kerkhoven

Aholkularitza:

Mercedes Herrera - Ekologia eta landare-biologia saila EHU/UPV

Dr. Iñigo Zuberogoitia Arroyo - ICARUS (Ingurumen-ikasketak)

Pedro Abad - EL KARPIN (Basa faunako abegi-zentroa)

Patricia Orejas - BRINZAL (Gau-harraparien errekupeazio zentroa)

Mitxel Ipiña - Lorezaina

Kolaborazioa:

Bilboko Udaletxeko lorezaintza saila

Eskerrak:

Iñaki Gamboa

Jatorrizko sortze-lana (2011): Ekoizpena: Z33 & A Two Dogs Company; babesleak: Limburgeko probintzia, Flandriako agintariak, Bruselako komunitate flandestarraren batzordea, Klara, Cobra.be, Groep C & Levis.

'MANSREADING, CROSS-DRESSING Y EL CUERPO COMO SÍNTOMA DEL PATRIARCADO'

ANDRÉS SENRA

Madril

Performancea/Jaia

(Aurretik talde itxiekien egindako tailer hitzartuaren emaitza)

Komisarioa: Javier Duero

Maiatzak 28

19:00-22:00

Kulturaren Ataria

Sarrera dohainik



Tailer eta performance kolektibo honek patriarkatuak gorputzean dituen sintomatologiak ikertuko ditu, keinu bidezko eta ekintzako lanaren bidez. Bukatzeko, parte-hartzaileek tailerrean landutako ekintzak gauzatuko dituzte, izaera ludikoa eta plazera aldarrikatzeko jai egunaren baitan. Azken performance hau Kulturen Atarian izango da.

Taldeko prozesuan zehar, gogoeta egingo da, patriarkatuak gorputza objektu bihurtzeari eta horretatik eratorritako menderatzei eta botere harremani buruz. Maskulinitasunak eta femininitasunak ordezkatu nahi dituzten kontakizunen gainean lan egingo dugu generikoki, sexualitatearen ideia binarioa auzitan jartzeko helburuarekin. Bukaerako emaitza-lanak izango dira azken jaia, aurkeztutako performanceak eta laneko prozesua dokumentatzen duen bideoa

ANDRÉS SENRA

Rio de Janeiro, 1968. Madril eta New York artean bizi eta lan egiten du. Andres Senrak espazio publikoan garatu izan ditu bere azken lanak. Identitatea eraikitzeari buruz gogoeta egin izan du, garatzen den testuinguruaren mendeko harreman-kontzeptu bezala; zeharka beste gai batzuekin lotu ditu, hala nola utopia gauzatzeko aukera -edo ezina-, hizkuntzaren funtzio komunikatzailea edo gure komunikazio-sistemetako bizi-egoeren interferentzia. Bere obran hiriarri buruzko gogoetan sakontzen da: biztanleen autobiografiaren bitartez sortutako espazioa da.

Lantaldea:

Bideoa eta musika: Jorge Núñez

Performerra: Eduardo Gaviña aka Yogurinha Borova

Kolaborazioa:

UPV/EHU Arte Ederren Fakultatea

Bilbao Arte Fundazioa - Fundación

Eskerrak:

EHGAM

GEHITU

MÁS ALLÁ DEL RUIDO

CARLOS DE HITA

Madril

Soinu-instalazioa/Performancea

Komisarioa: Rosa Casado


Maiatzaren 26tik 28ra

22:00-22:20

Erakusketa Aretoa

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

[Jaso zure sarrera Infopuntuan](#)



Bilboko inguru naturaleko soinu-instalazioa eta performancea, hiriko txoko isiletatik egindako landa-lanean (edo hiri-lanean) jasotako hainbat erregistroekin.

Soinuzko irudiaren aldeko apustu erabatekoa aretoaren iluntasunean: Bilbo, ekosistema natural lege, ekosistema honi zarata kendu besterik ez baita egin behar naturaltasun osoz ager dadin.

Soinuak berregin dira audio-inguratzailerako sistema erabiliz, naturako ahotsak hiriaren barnean eta gertuko ingurumarietan jasota. Hiru saio, erakusketako egun bakoitzean bat, itsasadarreko itsasaldiaren konpasean, mendi-hegaletako basoetan edo hirigunean bertan, itxura batean natura irudikatu ere egin ezin den inguruan.

Saio bakoitza, muntaketa bakoitza, egileak berak azalduko du, zuzenean eta ilunpean

CARLOS DE HITA

Soinu-teknikaria, soinu-paisaia eta naturako soinuetan aditua. Zineman lankidetzan aritu da, dokumentaletan, eta blogetan, gidetan eta hegaztiak beren abestien bidez ezagutzeko aplikazioetan ere bai. Parques Nacionales, Paisajes sonoros bildumaren egilea da.

'MOMENTS OF RELAXATION'

MARKUS WÜSTE

Alemania

Instalazioa / Akzioa

Komisarioa: Mateo Feijóo

Instalazioa: Maiatzaren 25etik 28ra

07:00-23:00

Azkioa: Maiatzaren 25etik 27ra

19:00-19:45

Kulturaren Ataria

Sarrera dohainik



Harria izango da Alemaniako eskultorearen ekintza eta instalazio honetako protagonista. Artistarekin batera, Iñaki Perurena eta Arran Zerbitzu Kulturalako harri-zulatzaileak ere parte hartuko dute akzio hauetan.

'Moments of relaxation' instalazioak Markus Wüste artistaren lan desberdinak batzen ditu, harriak eta honek Euskal Herrian duen presentzian inspiratuta.

- **Burko bilakatu arteko bide luzea.** Leundutako kareharrizko 15 pieza inguru, itsas fosilen inkrustazioekin
- **Disko-jogailuaren platera.** Disko-jogailuaren granitozko plater minimalista honek berezko materialtasunaren soinua ateratzen du orratz metaliko batez, soinu-harri bilakatuta.
- **Jauzi-zaldia (Sprungbock).** Hareharrizko blokea, metalezko euskarria, 140 cm-ko garaierakoa.

MARKUS WÜSTE

(Alemania, 1970) Berlingo Universität der Künste-n (Arteen Unibertsitatean) ikasi zuen, eta bertan egin zituen lehen saiakuntzak harriaren eskulturarekin, Yoshimi Hashimoto eskultorearen tailerrean. 2001ean Atenasko Arte Ederren Eskolako bisitaria izan zen. Honako hauek izan dira Markus Wüsteren lanaren ardatzak: harriarekin egin dituen saiakuntzak, eta mugimendua, arlo zinetikoa, prozesua, eta material modernoaren irudikapena ikertzea, materialaren adierazpeneko bihurtetari dagokionez. Banakako erakusketak jarri ditu Alemanian, Italian eta Espainian. Berlinen bizi da eta bertan lan egiten du.

Lantaldea:

Narrazioa eta testuak: Iñaki Perurena

Harri-zulatzaileak: Arran Zerbitzu Kulturalak

'MONTAÑA'

BELEN CUETO

Madril

Akzioa/Instalazioa

Komisarioa: Rosa Casado

Maiatzaren 23tik ekainaren 4ra

11:00-21:00

Erakusketa Aretoa

Sarrera dohainik



Zaborrek gure ingurune hurbilean duten zereginari buruzko ekintza eta instalazioa.

'Montaña' proiektuak, era miragarrian kamuflatuta dagoen arazo bat ikusgarri egin nahi du. Arazo horrek bide ematen du ekologia kontsumo-modu berrien moda baten gisa ulertzeko; eta beste praktika jasangarri, ekologiko eta sozial batzuk eskatzen ditu.

Proposamen politiko bat da, eta prozesu naturalak eta gizakiak horiekin dituen lotura estuak hartzen ditu aintzat; jarrerak sakon aldatu behar direla aldarrikatzen du, hala banaka nola taldeka, eta garatzeko eta bizitzeko moduak birplanteatzen ditu horretarako; bestelako baliokak eta ekintzak jartzen ditu martxan, eta horrek gaur egungo botere-harremanak eta ohiturak zalantzan jartzera behartzen gaitu; hala, mekanismo bat sortzen du, herritarrek euren ohiturak aldatzeko motibazioa izan dezaten, eta Naturearekin harmonian dauden aukera jasangarrietan parte har dezaten.

'Montaña' proiektuak irtenbide integralak eskatzen ditu, mugarik ez duten ingurumen-arloko arazoetarako, eta esparru kulturala, ekonomikoa eta soziala kontuan harturik.

BELEN CUETO

Bere lanarekin, eguneroko bizimoduan sartu, eta ekintza-lekutat hartzen du; bertan, errutinazko ohiturak erabiltzen ditu tresna moduan. Espazio publikoetan, naturaletan eta hiri-espazioetan agertzen da edo esku hartzen du. Izaera soziala eta politikoa du horrek, eta arrarotzat jotzea nahi du, gogobete barik ereduak errepikatzen eramatean gaituzten bizi-joerak eta nagikeriak berraztertzeko eta zalantzan jartzeko, eta, hala, gure ohiturak eta bizitako espazioak berriz formulatzeko.

Kolaborazioa:

Bizkaiko Zabor Berzikategia

'GEURE BURUA AHAZTEN ETA GOGORATZEN'

CAI TOMOS

Gales/Erresuma Batuak

Performancea

(Aurretik talde itxiekien egindako tailer hitzartuaren emaitza)

Komisarioa: Mateo Feijóo

Maiatzak 26

20:00

Mano de Santa/Auditorioa

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

Jaso zure sarrera [Infopuntuan](#)



Tailer honek dantza eta mugimendua landuko ditu adineko pertsonekin, sormeneko prozesu gisa hartuta. Tailerlean landutako performancea, non Itxaso Diaz bideo-sortzaileak ere parte hartuko duen, Azkuna Zentroko auditorioan aurkeztuko da.

'Geure burua ahazten eta gogoratzen' proiektuak gorputz guztiak goratzen ditu. Beren mugak eta aukerak, eta dantza deitzen dugun mugimendu soil horien bidez haien edertasuna adieraztea.

Guretzat egiten dugu dantza.

Zuentzat egiten dugu dantza.

Elkarri laguntzen diogu zertaz egongo garen eginda gogoratzeko.

Mugitu behar dugu, ez dakigu zergatik, ezta nor bilakatu gaitzekeen ere.

Galdu egiten gara dantzan.

Geure burua ahazten eta gogoratzen.

Etorri ginen mundura. Hazi ginen. Jaio ginen. Negar egin genuen. Hitz egin genuen. Zahartu ginen.

Dantza egin eta geure buruaz ahazten gara.

Dantza egiteari utzi, eta berriz dugu gogoan.

Beti ari gara ahazten eta gogoratzen.

Behin eta berriz

une iragankor batez desegin egingo gara eta inor eta mundu osoa bilakatuko gara.

Eta beste egitekorik ez dugunean

orduan dantza egingo dugu

eta dantza egingo dugu, desagertu arte.

CAI TOMOS

Cai Tomos mugimenduaren artista eta koreografoa da. Estatuan eta nazioartean aritu da, dantzari, koreografo eta mugimenduko zuzendari-lanetan. Bere lanean eragin handia du banakako eta taldeko energia entzuteko eta mendean hartzeko ahalmena garatzeko duen interesak; gure mugimenduaren adierazpen osoa lortu nahi du era horretan. Dantzako inprobisazioko praktikak ezinbestekoak dira bere sorkuntza-prozesuan.

Lantaldea:

Ikus-entzunezko dokumentazioa eta laguntzailea: Itxaso Díaz

Kolaborazioa:

Mano de Santa. Sorkuntza gune polibalentea

Eskerrak:

Jaime Cuenca, Aisialdi Ikasketeten Institutua, Deustuko Unibertsitatea

'ON AIR'

GRAEME MILLER

Erresuma Batuak

Performancea/Site specific instalazioa

Komisarioa: Rosa Casado

Maiatzaren 26tik 28ra

21:00-21:45

Erakusketa Aretoa (Bailen etxe-orratzetik igorrita)

Sarrera dohainik

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

Jaso zure sarrera. Infopuntuan



Irratiko performance/instalazio site-specific honetan, artistak Bailen kaleko etxe-orratzetik hiriaren fluxuaz egingo duen kontakizuna Azkuna Zentroko Erakusketa Aretoan igorriko da zuzenean.

'On Air' [Airean] lanean, irratsaio bat antzezten da: Bilbon gertatzen da, airea behatzeko gune baten eta lur-azpiko auditorium baten artean. Iluntzean, ordubete jardunean emango dute komentaria bik, iluntzeko paisaia deskribatuz lur-azpian dauden urruneko entzuleei; hala camera obscura bihurtuko da hori, eta fede-ekintza bat sorraraziko du entzuleen eta narratzaileen artean.

Graeme Miller-eko deskribatzaileek hiriko espazioari erraiak aterako dizkiote erdialdetik eta inguruko mendietarain; aldi berean, gramatika-tresna aldakorak erabiliko dituzte, justaposizioa, sinkronia, ekintza, espazioa, komunztadura eta berezitasuna islatzen dituztenak. 'On Air' hiru bider aurkeztuko da, eta hiriarekiko erantzun bakarra eta berdingabea izango da antzeppen bakoitza.

GRAEME MILLER

Graeme Miller artista, antzeztan-sortzailea eta konpositorea da. 80ko hamarkadan antzerkigintza ausart eta eragin handiko Impact Theatre teatro-kooperatibatik dator bera -sortzaileetarikeo bat ere izan zen-; bere banakako lanean, espektro zabaleko bitartekoak erabiltzen ditu gaur egun. 'Musika duen hainbat gauzaren konpositorea' izatea gogoan duela, antzerkia, dantza, instalazioak eta esku-hartzeak egin ditu. Mandatuzko lanak ere egin ditu aldizka eta leku espezifikoaerako, pasaiaren eta kokapenaren zentzu bizia islatzen dituztenak.

Lantaldea:

Soinu zuzendari teknikoa: Alberto de la Hoz

Narratzaileak: Alicia San Juan, Ainhoa Artetxe eta Adrián García

Kolaborazioa:

Abitura Arquitectura

Artsadmin-ek ekoitzia.

Royal Borough of Kensington and Chelseak eman zuen ON AIRren hasierako mandaturua ROAD SHOWerako, eta DREAMek ekoitzi zuen.

'RURAL AND SPICY'

TEN PEN CHii ART LABOR

Alemania

Performancea

Komisarioa: Mateo Feijóo

Maiatzaren 26tik 28ra

22:30*

Espazio Open Zorrotzaurre

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

[Jaso zure sarrera Infopuntuan](#)



*22:00 Ekitaldira bertaratzeko dohaineko autobus zerbitzua (joan eta etorria) Azkuna Zentrotik (Urquijo Kalea eta Plaza Bizkaiko izkinan). Zerbitzura sarbidea ekitaldiko sarrerarekin

Egoitza eta tailer bat abiaburutzat hartuta, Berlingo taldeak Zorrotzaurreko 'Espacio Open' gunean egingo duen site specific performance honetan, energia minez betetako diziplinarteko performancea bilakatuko dira herri-kirolak.

Biologo ebolutiboek arreta gutxi eskaini diete kirolei. Seguruenik, hasieran, gizakiek ehizarako eta gerrarako behar zituzten trebetasunak garatzeko modu bat izango zen, huts-hutsean; eta, gero, gizonetako atletak eta ikusleek aliatu edo arerio izan zitezkeen dohainak aztertzeko erakustaldi bilakatuko zen, oinarri-oinarrian.

Euskal Herriko herri-kirolak garai batean euskaldunek egiten zituzten eguneroko lanetatik oso hurbil daude oraindik. Denboraren poderioz, auzokoen arteko desafio bihurtu ziren, aisialdian apustuak egiten baitzituzten, nola baserriko eginkizunetan, hala itsasokoetan, nor bere trebetasunaren alde: nor moztu belarra lehenago, nor moztu enbor gehiago, nor azkarrago arraun egin, eta abar). Euskaldunak indar handiko jendea izateko fama argi sumatu daiteke herri-jasotzeko probetan, txinga-lasterketetan edo taldeen arteko soka-tiran. Animaliak ere euren eginkizunak ahalik eta ondoen egiteko prestatu izan dira, eta harria arrastatzeko probak, ahari-jokoak edo ardi txakurren lehiaketak erabili dira horretarako.

Herri-kirol serio horiek abiaburutzat hartuta, TEN PEN CHii-k interpretatu eta itxuraldatu egin ditu, eta diziplinarteko performance garaikide bat sortu du; performance arina, ironikoa eta piperdun energiarekin bete.

TEN PEN CHii ART LABOR

1995ean JoaXhim Manger multimedia artistak, Yumiko Yoshioka koreografoak eta Zam Johnson musikagileak TEN PEN CHii ART LABOR osatu zuten, performanceak sortzen dituen konpainia artistikoa. Euren emankizunak osatzeko, gorputza, musika soinuak, eta argiak lotzen dituzte. Mundu berri baten markoa eta sorrera dira. Ezagutza guztia trinkotzen denean gertatzen da. Eta, jakina, irudien ahalmek ere liluratzen ditu gure burmuinak. Gaur egunera arte, 300 emankizun baino gehiago egin dituzte mundu osoan zehar; besteak beste, Alemanian, Frantzia, Italian, Japonian, Kanadan, Austrian, Portugalen eta Espainian.

Lantaldea:

Zuzendaria, 'cross-media' artista: Joaxhim Manger

Koreografoa: Yumiko Yoshioka

Musikagilea: Zam Johnson

Koreografia performerra: Matilde Murcia, Javier Ciria

Teknikaria, performerra: Spiros Paterakis

Performerra: Rafaela Bidarra

Musika: Yeray Portillo

Kolaborazioa:

Espacio Open

Antzinako Bilboko Gailera Fabrika (Artiach)

Ribera de Deusto 70B, 1º

'WORK AND PLAY - BASQUE COUNTRY SPORTS'

JULIAN GERMAIN

Erresuma Batuak

Hiri-erakusketa

Komisarioa: Mateo Feijóo

Maiatzaren 23tik 30ra

Erakusketa, hiritik zehar dauden publizitate euskarrietan

Maiatzaren 23tik 28ra

Instalazioa Kulturaren Atarian

07:00-23:00



Julian Germain artistaren argazki-lanaren hiri-erakusketa, tradiziozko euskal kiroleko eskoletan gazteek duten entrenamenduari buruzkoa.

Azkuna Zentroko Kulturaren Atarian, ikus-entzunezko instalazioa izango dugu maiatzaren 23tik 28ra.

Euskal Herrian sustrai sakoneko hainbat lehia-kirol daude, erro historikoak nekazaritzako, meatzaritzako eta arrantzako lanean dituztenak. Ia denak indarrari, erresistentziari eta abilezia teknikoari egindako erronkak dira, ezaugarri horiek nahitaezkoak baitziren eskulangileentzat. XX. mendean, ia erabat desagertu ziren lanbide horiek, eta 'joko' bihurtu izanak eutsi die jardueri, euskal identitaterako eta kulturarako balio sinboliko handia baitute. Julian Germainek argazki eta bideoen lan-serie bat egin du, kirol horien aniztasuna jasotzen eta erakusten, erretratu formalen bidez eta parte hartzen duten gizonen, emakumeen eta umeen ekintzen bidez.

JULIAN GERMAIN

Argazkilaritza ikasi zuen Nottingham-eko Trent Plythechnic-en eta Londresko Royal College of Art-en. Zenbait liburu argitaratu ditu, eta ezaguna da zaleen irudiei emandako baliogatik eta bere lanean horiek sartzeagatik. Aipatu beharra dago, 'No' oihoa da rua (Kaleko begian), 1995an hasi eta oraindik egiten ari den kolaborazio-proiektua, non artista brasildarrek eta Belo Horizonteko kaleetako neska-mutiek (Brasil) parte hartzen duten.

Lantaldea:

Produkzioa laguntzailea: Hodei Lavega

Kolaborazioa:

Joseba Ostolaza Harri Eskola

Anaitz Aurtenetxe Lekerika

Emarri Taldea

Almitza Segar Elkarte

Mutrikuko Sokatira Taldea

Gallartako Herri kirol Eskola

Santurziko Neska Taldea

Eibarko Euskal Jokoak

Leioako Euskal Kirol Zaleak

Xepla Kirol Elkarte

Kaiku Arraun Kirol Elkarte

Eskerrak:

Felix Cortazar

Eneko Balerdi

Kontsultatu hiri-erakusketako puntuak www.azkunazentroa.com webgunean

'200 WORDS'

FLO KASEARU

Estonia

Instalazioa/Performancea

(Aurretik talde itxiekien egindako tailer hitzartuaren emaitza)

Komisarioa: Javier Duero

Maiatzak 27

20:00-22:00

Kulturaren Ataria

Sarrera dohainik



Tailer honek duen lan kolektiboko metodologiak gonbit egiten du pertsonak artista eta herritar bezala duen 'statement' edo adierazpenari buruz gogoeta egitera. Tailerra berariazko instalazio batekin bukatuko da, ozen irakurtzeko performance formatuan, tailerrean zehar idatzitako 'statement' guztiei ahotza emanda.

Nor zara? Zer egiten duzu? Zergatik egiten duzu? Jende guztiak bere existentzia adierazteko aukera izan beharko lukeela uste al duzu? Zeurea deskribatzen saiatu al zara? Adierazpenik idatzi al duzu? Zure adierazpena sarritan aldatzen al duzu? Artistentzat funtsezkoa da artistaren adierazpena, hainbat deialdi, programa publiko, beka, egoitza eta antzekoetara aurkeztu ahal izateko.

'200 Words' (200 hitz) proiektuak gonbit egiten die artistei eta artista ez direnei hiru galdera hauen erantzuna pentsatzera: Jende guztiarentzat balio al du? Guztiarentzat funtsezkoa al da? Zein da zure adierazpena une honetan, 2016ko maiatzaren bukaeran, zure tokiko komunitatean gertatzen dena kontuan hartuta?

Parte hartu nahi dutenek tailer bat egingo dute, eta adierazpen bat osatzea izango da horren metodologia. Performance / instalazio bat izango da emaitza. Bertan, jendea animatuko da espazio publiko baten barruan mikrofonoaren aurrean adierazpena ozen irakur dezan.

FLO KASEARU

Flo Kasearuk (1985) pintura eta argazkilaritza ikasi zituen Estoniako Arteen Akademian. 2006-2007 urteen artean trukeko ikaslea izan zen Berlingo Arteen Unibertsitatean (UdKn); bertan, Rebecca Horn estudioan aritu zen lanean, eta performanceak eta bideoarteak egiten hasi zen. Bere lanak esploraziokoak dira. Proiektu bakoitza interesatzen zaizkion gaiak eta egoerak ikertzeko hasitako esperimendu baten gisakoa da.

Kolaborazioa:

Okela

Espacio Puerta

PROTUTIAK

KOMISARIOAK:

Rosa Casado
Javier Duero
Xabier Erkizia
Mateo Feijóo

Proiektu hau aurrera ateratzea ezinezkoa izango zen **Fernando Pérez**en aholkularitza artistikorik eta lankidetzarik gabe, eta **David Márquez**ek programaren koordinatzaile gisa eta **Iván Alonsok** ekoizpeneko teknikari lanetan izandako konpromisorik gabe.



KOLABORATZAILEAK



INSTITUT
FRANÇAIS



Unibertsitat
del País Vasco



Euzko Herriko
Unibertsitatea

DeustoBide
Escuela de Ciudadanía ●●●●●
●●●●● Herriartean Eskola

LAGUNTZAILEAK

ALSA



Gora Buru
Kultur Elkartea



abitura



metro
bilbao



ROSA CASADO

Artista

«Prototipoak programako lantaldean parte hartzera gonbidatu nindutenean, Jane Jacobsen liburu bat aurkitu berri nuen (The Death and Life of Great American Cities -Heriotza eta bizitza Amerikako hiri handietan-), Doreen Masseyren ideien artean nahasten eta miatzen ari nintzen bitartean. Doreen Massey geografo erradikal, feminista eta ekintzaile politikoa lagun ugariaren inspirazioa izan da, 70eko hamarkadako urteetatik hona, espazioari, lekuei eta botere-harremanei buruz egin dituen lanekin. Hark kontatzen digunaren arabera, espazioa, lekuak ez dira bizitzaren agertokiak bakarrik,

bizitza bera direlako, etengabe eraldatzen ari den errealtatea. Pertsonen, animalien eta gauzen arteko harremanetan jaiotzen da errealtate hori, materialaren eta immaterialaren artean, naturalaren, kulturalaren, sozialaren eta ekonomikoaren artean, mikroskopikoaren eta makroskopikoaren artean, berehalakoaren, betierekoaren, tokikoaren eta globalaren artean... Bestalde, Jane Jacobs -60ko hamarkadan hiriei buruz asko idatzi zuen emakume liluragarria, hirigintzako teorialaria eta ekintzaile politiko-soziala- bere liburuan kaleei eta espaloiei buruz ari zaigunean, hiriaren bizi-organoak balira bezala hartzen ditu, giza elkarbizitzak adierazteko modurik sortzaileenak eta emankorrenak aurkitu ditzakeen ingurunea bailira bezala. Jacobsen ideien harira Manuel Delgadok dioenez, bertan nahasten dira 'gertaera handiak edo mikroskopikoak, jarraibidea duten jokabideak eta bazterreko portaerak, monotoniak eta ustekabeak, txepela eta aparta, arrunta eta misterioitsua, iraunkorra eta mutazioak, funtsezkoa eta azalekoa, ziurtasunak eta abentura'... Bi emakume horiei esker, bizi garen lekuak ingurune konplexutzat hartzen ditugu, gertaera desberdin ugari gertatzen baitira, etengabe, hurrenez hurren. Batzuetan gertaerak bat datoz edo elkarri laguntzen diote; beste batzuetan elkarri aurre egiten diote, elkarren tartean sartzen dira edo elkarrekiko axolarik gabe jokatzten dute... Eta, haren testuren bat irakurri berri dudanean, kanpora begiratzeko edo kalera zerbait egitera joateko gogoia sortzen zait beti, zer suma ibiltzera, esploratzera, ea zer gertatzen den edo hor zehar zer aurkitzen dudan...

Paradoxikoki, eta kanpoaldeko espazioek -kalean, plazetan, parkeetan, landa lurretan, itsasoan, zeruan eta izar arteko espazioan- eragiten didaten lilurarekin, proiektu honetan bameko eta lurpeko espazio batean lan egitea egokitu zait: Azkuna Zentroko erakusketa-aretoan. Batik bat, kanporantz begiratu eta hiria behatzeko leiho bihurtu nahi izan dut leku hau, bertako espaloiak, zeruak, hurbilekoa eta urrun samar dagoena, bizitza, gizakioi dagokiguna eta gainerakoei dagokien guztia antolatzen duen azpiko ordena... ikusteko. Leihotik begiratzea bezain hutsala den jarduera batek eguneroko une horiek ezagutzen eta aurkitzen lagundu diezaguke, tragikoak, itxaropen-emaileak, gatazkatsuak, elkarrekin bizitzea -gorputz organikoak eta inorganikoak, objektu naturalak eta kulturalak- markatzen dutenak eta elkarbizitzaren neurria zein den erakusten digutenak.

Prototipoak topaketan pixkanaka pixkanaka erakusketa-aretoa hartuko duten artistek -euren artean naturalista bat izanik, denak artistak ez badira ere- ideiak, baldintzak, erabilerak, izakiak eta objektuak aurkeztuko dizkigute euren proposamenetan. Horiek guztiak, tokian tokikoaren bereizgarritik hedatu, eta mundu desorekatua bistaratzten digute, mundu ankerra sarritan: bizi ahal izateko arazoak eragiten dituen planeta, orain hiru hamarkada baino baliabide eta aniztasun gutxiagorekin... Hala ere,aldi berean, ekintza, pentsamendu, harridura, plazer, sumin eta grinaren adierazpenak dira, eta gure ingurua ulertzeko dugun modua eraberritzera gonbidatzen gaituzte, bizitzeko eta ibiltzeko ditugun lekuekiko dugun esperientzia zabalzera, gure egunerokoa aberatsagoa eta konplexuago bihurtzeko. Espero dugu proposamen poetiko horiek bizitza ukitu dezaten, eta lagundu diezaguten oraina ulertzen, etorkizun iraunkoragoa, bidezkoagoa eta ekologikoki progresiboagoa irudikatu ahal izateko.

(Gaur jakin dut Doreen Massey joan den martxoaren 11n hil zela... Harekin pentsatuz kalera joan naiz pasieran ibiltzera.)»



JAVIER DUERO

«Site-specific proiektu bat sortzeko prozesua kokatuko den lekuarekin lotuta dago, eta, ildo horretan, arkitekturako elementuak jorratzen ditu, adibidez, eskala, tamaina eta proportzioa. Proiektu horrek inguru jakin baten eta berariazko testuinguru bateko osagaien azterketa du oinarrian.

Site-specific proiektu baten alde aurreko analisiak, tokiko ezaugarri sozialak edo politikoak aintzat hartzeaz gain, ezinbestez azaltzen diren balio sozial eta politiko unibertsalak ere izaten ditu kontuan. Site-specific proiektuek elkarriketan hasten dira inguruarekin, eta bi mintzaira desberdin azpimarratzen dituzte: ekoizpen artistikoak berez duena, batetik, eta testuingurukoa, bestetik.

Beraz, hainbat galdera egin ahal dizkiogu geure buruari. Sormen-lan artistiko jakin bat jomuga sozial batekin sortzeak lan sozial gisa legitimatzen al du? Sormen-lan artistiko mota hori eraginkorra al da transferentzia aldetik? Ikusleak beti berberak al dira? Batzuek ekoizti egiten dute, eta beste batzuek kontatu eta dokumentatu?

Andres Senra eta Flo Kasearu artista bisualek aurkezten dituzten proiektuetan kontu horiek ikertzen dira, eta antzeko landa-ikerketatik eta lan-metodologietatik abiatzen dira, nahiz eta euren ikuspuntua oso ondo bereizitako komunitateetara eta taldeetara bideratu.

Herritarren parte-hartzea esperientzia kolektiboan oinarritutako ahalduntze-estrategia dela ulertuz, bi artistek jaialdi-prototipoaren ideia horrekin lan egiteko gonbidapena jaso dute; eta, egiletza urtu, eta ekintza performatibo baten bitartekari- eta bideratzaile-lanei ekiteko aukera ematen duen harreman-markoan kokatu dituzte euren proposamenak.

Andres Senraren 'Manspreading, Cross-dressing y el cuerpo como síntoma del patriarcado' ekintza kolektiboaren oinarrian, keinuaren eta ekintzaren bitartez patriarkatuaren sintomatologiak esploratzeko talde-lana aktibatzen duen tailer bat dago. Tailerrari amaiera emateko, arratsalde batean performanceak egingo dira, banaka edo taldeka, Kulturen Atariko gune batean.

Flo Kasearuk proposatzen duen '200 Words' proiektuan, galdera hauek egiten dira: Nor zara? Zer egiten duzu? Zergatik egiten duzu? Lan kolektiboaren metodologia duen tailerra da; eta pertsonak artista eta herritar gisa duen statementari buruz gogoeta egitera gonbidatzen du. Tailerra berariazko instalazio batekin bukatuko da, ozen irakurtzeko performance formatuan, tailerrean idatzitako statement guztiei ahotsa emanez, Kulturen Atariaren barruko mikrofono baten aurrean. »

XABIER ERKIZIA



IDI GURDI BATEN BUELTRAN

«Katharine Lee Bates (1859-1929) nagusiki kantugile izateagatik da ezaguna Iparramerikan. Bereak dira hango hainbat ereserki eta kantu herrikoiren hitzak eta beste hainbat olerki ezagun. Baina bere idatzien artean, XX. mendea hastearekin batera, Batesek bidai liburuaren generoa ere landu zuen. 'Spanish Highways and Byways' izan zen estilo hortan argitaratu zuen lehen lana.

'Inpresio bilduma bat baino' izan nahi ez duen liburu honen 22. kapituluan, Batesek Santiagorako bidean Euskal herrira egindako bisitaldia azaltzen du. Gaur egun oraindik bizirik dauden topikoek gidatzen dute nagusiki bere kronika: paisaiaren berdea, hizkuntzaren jatorri misteriosua, Donostiaren garbitasuna eta modu berezian, euskaldunen berezko noblezia, harrotasuna eta burugogkeria.

«Behin batean, asmo aurrerakoieko hiri batek, halako musika gogaikarriak hiribarnean sartzten zituenarentzako bost dolarreko isuna ezartzea erabaki zuen. Orduan, libre jaiotako euskaldun haietako batek, goizean esnatu, uztarri ederrena aukeratu, idiei jarri, beraien begi bareak tapatzen zituzten gorri koloreko larruak arreta haundiz ezarri, eta herrirako bidea hartu zuen: 'txirrin, txarran, txirrin, txarran'. Herriko etxera iritsi zen zuzen-zuzen. Bertan 25 pezetako isuna ordaindu eta egun guztian bere gurdia kalez kale paseatu zuen, denei aldez aurretik ordaindu zuen kirrika entzunarazteko.»

Benetazkoa izan edo ez, Batesen begirada zorrotza ageriatzen geratzen da, pasarte hau aukeratzekoan. Metaforak balio dio: euskalduna da itzaina, gurdiaren karranka da hizkuntza, eta Bilbo modernoa da gurdia entzun nahi ez duen aberri izandako atzerria. Euskaldunei buruzko topiko erabili guztiak baliatuz, Batesen idi gurdiak eta haren kirrinkak, modernitatearen orbainak erakusten ditu, soinu bihurtuta, euskaldun zaharrari zarata egitea baino ez zaiola geratzen esan nahiko balu bezala.

Proposamen honek idazle amerikarraren testu hau hartuko du oinarri, partitura musikal eta kontzeptual gisa, Bilbo garaikidearen soinuaren inguruan disekzio lan bat egiteko. Lan taldeko ikerketan oinarrituz, espazio publiko nahiz pribatueta soinuari buruzko politiken inguruko hausnarketa proposatzen du: Hiriaren soinu diseinua, bertan gertatzen diren mozorrotze prozesuak, hauen araberrako legediak eta hauek biztanleekin ezartzen dituzten kontratu sinbolikoak azaleratzea da helburua.»



MATEO FEIJÓO

ELKARRIZKETA BAT ERAIKITZEN

«Kaxa beltzerako, kubo zurirako ez eraikitzea. Gorputzak beste espazio batzuekin konektatuta. Site Specific-a ez da egokitzea, ezta artifizioak konbinatzea ere. Ez dago site specific-ik. Badira inguruarekin, sozialarekin, gizatiarrarekin, naturalarekin eta abarrekin sortzen diren harremanak... Gorputz politikoa existitzen da.

Auto batek mendirantz garamatza, lanbro eta berde artifizialeko amets moduko zera bat da; aurrerantz goazen heinean, lainoen eta hezetasunaren artean begirada hedatzen ahalegintzen gara. Ez dakigu zer aurkituko dugun. Harrijasotzaileen entseguetako garajejan sartu gara. Sarietarako aldare bat da. Harriak figura geometriko perfektuak dira: gorputzak besarkatzen dituzte, haietan gora igotzen dira, lurretik belaunetaraino, hortik bularrera, jauzi bat eta sorbaldan kokatzen dira, eta handik segundo batzuetan begiratu egiten digute. Begirada sorgorra, tristea, nagia; besarkatutako gorputzaren oinetara bere burua bota aurreko unekoa. Apaldutako soinu bat, aiene bat.

Errepidera itzuli gara, eta mendian gora jarraitu dugu, arrastatze-lekuko fokuen argi zuriak gaua ebaki nahi du herrian, apustuen soinua marmar bihurtuko balu bezala da. Harriak harriari egiten dio aurre. Harrizko lurra, proba-harria, harrizko ahotsa, harrizko etxea, harria bezalako argia... Idiei darie kea eta lerdea, eta haiek bakarrik dira hauskorrak, indarra eta ahalmena izan arren. Haien izterretatik odolezko perlak doaz ihesi, eta euren belaunak jotzean hausten dira oharkabeen. Erritmo primitibo bat dago apustuko eta arrastatzeko garrasian. Koreografia joan-etorriko pasioekin artikulatzen da: jasotako besoak, kontsonantez betetako oihuak, anakrusi etenak.

Gauerdia ondo pasata egin dugu itzulera bidea; hezetasunak inguratzen du dena. Julian Germainen begietan zehar gelditu ginen ahaleginaren soseguan, gorputza abian jartzen duen barne-pultsuan.

Distantziatik, Cai Tomosek gorputz helduarentzako beste mugimendu batzuetan pentsatzen du. Edozein mugimenduk du bere garrantzia, komunikatu egiten du...

Ten Pen Chiik baliokidetzak bilatzen ditu, gizakiari ahalegin fisikoan bere burua estutzea behartzen duen behar jatorrizkoaren eta gaur egungo euskal herri-kiroleko praktiketako indar-erakustaldien artean. Begiradak elkarren artean gurutzatzeko beste aukera bat izan litekeena sortzeko jarraibideak. Kanpotarren eta bertakoen arteko elkarrizketa.

Azkenean, emozioak, ahalegina, ahotsa, harria, enborra, belarra, gorputzak... guztiek eraikitzen dute beste espazio hori.»

Berlín 16/4/15

PROGRAMA

16 MAIATZA
MAYO

Maiatzaren 25era arte Hasta el 25 Mayo
09:30-14:00
Espazioa Espacio
Mano de Santa (Deusto)
CAI TOMOS (UK)

'FORGETTING AND REMEMBERING OURSELVES'

Tailer hitzartua Taller concertado

Maiatzaren 25era arte Hasta el 25 Mayo
10:00-14:00
Espacio Open de Zorrotzaurre
TEN PEN CHII (DE)

'RURAL AND SPICY'

Tailer hitzartua Taller concertado

23 MAIATZA
MAYO

Maiatzaren 25era arte Hasta el 25 Mayo
10:00-13:00 / 15:00-19:00
Jarduera Osagarrien Eraikina 2
Centro Actividades Complementarias 2
ERIC DE LA CASA (FR)

'DISECCIÓN'

Tailer hitzartua Taller concertado

Maiatzaren 30era arte Hasta el 30 Mayo
Hiri-erakusketa Bilbotik
Esposición Urbana por Bilbao
JULIAN GERMAIN (UK)

'WORK AND PLAY - BASQUE COUNTRY SPORTS'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

Ekainaren 4ra arte Hasta el 4 Junio
11:00-21:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
KRIS VERDONK (BE)

'EXOTE' *

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

Ekainaren 4ra arte Hasta el 4 Junio
11:00-21:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
BELÉN CUETO (MAD)

'MONTAÑA'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

25 MAIATZA
MAYO

Maiatzaren 28ra arte Hasta el 28 Mayo
07:00-23:00
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
MARKUS WÜSTE (DE)

'MOMENTS OF RELAXATION'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

Maiatzaren 28ra arte Hasta el 28 Mayo
07:00-23:00
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
JULIAN GERMAIN (UK)

'WORK AND PLAY - BASQUE COUNTRY SPORTS'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

11:00
Hiri-ibilbidea Recorrido urbano
PEARSON / BROOKES (UK)
'CARRYING RUBÉN'
Akzioa/Performancea Acción/Performance

16:00-20:00
Jarduera Osagarrien Eraikina 1
Centro Actividades Complementarias 1
FLO KASEARU (EE)

'200 WORDS'

Tailer hitzartua Taller concertado

18:30
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
AURKEZPENA PRESENTACIÓN
PROTOTIPOAK

19:00
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
MARKUS WÜSTE (DE)

'MOMENTS OF RELAXATION'

Akzioa/Performancea Acción/Performance

20:00
Hiri-ibilbidea + Erakusketa Aretoa
Recorrido urbano + Sala de Exposiciones
PEARSON / BROOKES (UK)




'CARRYING RUBÉN'

Akzioa/Performancea Acción/Performance


20:00
Ekainaren 4ra arte Hasta el 4 Junio
11:00-21:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
PEARSON / BROOKES (UK)

'CARRYING RUBÉN'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

-  Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición
-  Akzioa/Performancea Acción/Performance
-  Tailer hitzartua talde itxiekien Taller concertado con grupos cerrados

* Bisita gidatuak: ostegun, ostiral eta larunbatetan 18:00etatik 18:30etara.
Inskripzioak: Infopuntuan edo telefono bidez: 944 014 014
Visitas guiadas: jueves, viernes y sábados de 18:00 a 18:30h.
Inscripción en Infopuntua o a través del teléfono: 944 014 014

 Dohaineako autobus zerbitzua (joan eta etorria) Az (Urquijo Kalea eta Plaza Bizkaiko izkinan). Zerbitzura sarbidea ekitaldiko sarrerarekin
Servicio de autobús gratuito (ida y vuelta) desde Az (Esquina de la Calle Urquijo con la Plaza Bizkaia). Acceso a este servicio con la entrada.

26 MAIATZA
MAYO

Ekainaren 4ra arte Hasta el 4 Junio
18:00-21:00
Jarduera Osagarrien Eraikina 2
Centro Actividades Complementarias 2
ERIC DE LA CASA (FR)

'DISECCIÓN'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

Ekainaren 4ra arte Hasta el 4 Junio
18:00-21:00
Jarduera Osagarrien Eraikina 2
Centro Actividades Complementarias 2
OSKAR ALEGRIA, MAIALEN LUJANBIO
Y LUCA RULLO (EH / PV)

'DIARIO DE UN VIAJE INTERIOR'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

19:00
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
MARKUS WÜSTE (DE)

'MOMENTS OF RELAXATION'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

20:00
Auditoria Auditorio
CAI TOMOS (UK)

'FORGETTING AND REMEMBERING OURSELVES'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

21:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
GRAEME MILLER (UK)

'ON AIR'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

22:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
CARLOS DE HITTA (MAD)

'MÁS ALLÁ DEL RUIDO'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

22:30
Espacio Open Zorrotzaurre
TEN PEN CHII (DE)

'RURAL AND SPICY'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

» 22:00 Az - Zorrotzaure
« 23:30 Zorrotzaure - Az

Maiatzaren 27ra arte Hasta el 27 Mayo
22:30

Jarduera Osagarrien Eraikina 1
Centro Actividades Complementarias 1
ANDRÉS SENRA (MAD)

'MANSREADING CROSS DRESSING Y EL CUERPO COMO SÍNTOMA DEL PATRIARCADO'

Tailer hitzartua Taller concertado

27 MAIATZA
MAYO

19:00
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
MARKUS WÜSTE (DE)

'MOMENTS OF RELAXATION'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

20:00
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
FLO KASEARU (EE)

'200 WORDS'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

21:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
GRAEME MILLER (UK)

'ON AIR'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

22:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
CARLOS DE HITTA (MAD)

'MÁS ALLÁ DEL RUIDO'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

22:30
Espacio Open Zorrotzaurre
TEN PEN CHII (DE)

'RURAL AND SPICY'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

» 22:00 Az - Zorrotzaure
« 23:30 Zorrotzaure - Az

28 MAIATZA
MAYO

Ekainaren 4ra arte Hasta el 4 Junio
11:00-21:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
GRAEME MILLER (UK)

'ON AIR'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

Ekainaren 4ra arte Hasta el 4 Junio
11:00-21:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
CARLOS DE HITTA (MAD)

'MÁS ALLÁ DEL RUIDO'

Instalazioa/Erakusketa Instalación/Exposición

12:00
Hiri-ibilbidea Recorrido urbano
Plaza Biribila Plaza Circular - Az
MARKUS WÜSTE (DE)

'EL RECHINAR (A)PAGADO'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

19:00
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
ANDRÉS SENRA (MAD)

'MANSREADING CROSS DRESSING Y EL CUERPO COMO SÍNTOMA DEL PATRIARCADO'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

21:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
GRAEME MILLER (UK)

'ON AIR'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

22:00
Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones
CARLOS DE HITTA (MAD)

'MÁS ALLÁ DEL RUIDO'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

22:30
Espacio Open Zorrotzaurre
TEN PEN CHII (DE)

'RURAL AND SPICY'

Akzioa/Performancee Acción/Performance

» 22:00 Az - Zorrotzaure
« 23:30 Zorrotzaure - Az

00:15
Kulturen Ataria Atrio de las Culturas
TRES (BCN)

'BLACKOUT #30'

Akzioa/Performancee Acción/Performance